

Aste Santuko ospakizun erlijiosoak gaurtik igandera Hernaniko hiru parrokietan

- Gaur penitentzia komunitarioak izango dira San Juan Bautista eta San Jose Obrero parrokietan, 19:30etan
- Aitortzak gaur eta larunbatean dira San Juan Bautistan, 18:00etatik 19:00etara.

ERRAMU Egunak eman zien hasiera Aste Santuko elizkizun bereziei, joan den igan-dean. Urtero bezala, aurten ere egunero izango dira ospakizun erlijiosoak herriko hiru parrokietan Jesukristoren heriotza eta piztua ospatzeko: penitentzia komunitarioak, aitorzak, Gurutzbidea, Pasio Ospakizuna eta abar.

Ospakizun erlijioso horien barruan, gaur, Asteazken Santua, penitentzia komunitarioa izango da Juan Bataiatzailea eta Jose Langilearen parrokietan. Bi penitenciak arratsaldeko 19:30etan izango dira. Aitortzak, berriz, gaur eta larunbatean izango dira: 18:00etatik 19:00etara Juan Bataiatzailea parrokan.

Ostegun Santu Egunean Kristoren Azken Afaria ospatzzen da eta elizkizunak izango dira Ereñotzun, Floridan eta zentruan. Ereñotzun arratsaldeko 17:00etan izango da meza; Floridan, 18:00etan eta Juan Bataiatzailean, 19:00etan.



Santa Barbarako Gurutzbideak fededun asko biltzen ditu, 14 estaziotan barrena.

tzun arratsaldeko 17:00etan izango da meza; Floridan, 18:00etan eta Juan Bataiatzailean, 19:00etan.

Ostiral Santuan, goizeko 08:30etan Gurutzbidea egin-

go da Santa Barbarra, eta ondorenean mezak izango dira. Arratsaldean, berriz, Pasio Ospakizuna herriko hiru parrokietan.

Larunbat Santuan Pazko

bijilia da eta arratsaldean elizkizunak eta aitortzak izango dira.

Eta, azkenik, Pazko Igan-dean Meza Nagusiak Jesus piztu izana ospatzeko. □

Aralar eta Zutik ez dira Udaletxeko hauteskundeetan aterako

- Bi alderdiek elkarrekin koalizioan ateratzeko asmoa zuten Gipuzkoan, baina, ez da egon akordio orokorrik.

MAIATZEKO Udal Hauteskundeetan Aralar eta Zutik ez dira aurkeztuko Hernanin. Otsailean Aralarrek aurkezpen publikoa egin zuen Hernanin eta orduan aurreratu zuen Hernanin ere hauteskundeetara aurkezteko asmoa zuela. Esan zutenez, Zutikekin koalizioa osatzeko harremanak aurreratuta zeuden. Azkenean, ordea, bi alderdiek ez dute akordio orokorrik lortu, eta Hernanin ez dira aurkeztuko, ez elkarrekin eta ez bakoitzaz bere aldetik.

Aralarreko ordezkariak Kronikari adierazi dio bakarrik aurkezteko oso denbora gutxi izan dutela eta egoera politikoak ere

ez duela lagundu. Oraingoa sondeo bat izan dela esan du, eta aurrera begirako lana oinarria egituratzea eta sendotzea izango dela. Diputazioa, ordea, aurkeztuko da Aralar eta Iñaki Irazabalbeitia izango da Donostialdeko zerrendaburua.

Zutikek Kronikari azaldu dionez, formazio horrek ere Aralarrekin koalizioan ateratzeko aukerari heldu zion. Negoziazioek, ordea, ez dute aurrera egin, eta Zutikek ez du Udal hauteskunde listarik aterako. Zutikeko ordezkariak esan du bakarrik aurkeztea ez duela planteatu ere egin. □



Iñaki Irazabalbeitia eta Ernesto Merino Aralarreko kideak.

GARAYAR AUTOBUSAK

Autobus serbitzua
Linea erregularrak



Zerbitzu diskrezzionalak
(ESKOLARRAK)

Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain
Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662
Fax: 943 381 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es
20120 Hernani (Gipuzkoa)



Bertako produktuak
Fruitu exotikoak

Telefonoz eskatzeko:
943 33 32 75

Orain helbide berrian gaituzu:
Antziola 5



Kale Nagusia 63

Hemen erosiz,
Tenerifera joan
zintezke

50 euroko
erosketagatik
zokzetarako
boleto bat

Zozketa: 2003ko Ekainak 28ko
loteriarekin

Eusko Alkartasunak Hiri Batzarra, gaur

EUSKO Alkartasunak Hiri Batzarra egingo du gaur arratsaldean eta alderdiak dei egin die afiliatu eta jarraitzaile guztiei batzarrean iza-teko. Hiri Batzarra Alkartetxeen izango da, 19:00etan. □

BILDU HERNANI

Azken eguna gaur plataformaren alde firma emateko

BILDU Hernani firma biltzen ari da plataformak hauteskundeetan ateratzeko eskubidea izatearen alde, eta gaur da sinadura emateko azken eguna. Firmatzeko, Udaletxean, 11:00etatik 15:00etara. □

PELOTA

Erdozio eta Arregi Gipuzkoako txapeldun

ASTEBURU honetan Udaberri Txapelketako finala jokatu da bigarren mailako kadeteetan, eta Erdozio eta Arregi hernaniarrek irabazi dute txapelketa. Hernaniarrek 22-17 irabazi zien elgoibartarrei.

Hona hemen gainerako emaitzak: Andazpeki 22-Arrieta-Zurutuzak 17; Gaztelekuk 33/Lujanio-Galarzak 40; Martinez-Manzisidorrek 28/Altzatarrak 30; Muñozek 10 Ezeizak 22; Barrutiak 22-Artolak 7; Barrantesek 22-Arrietak 9. Datorren asteburuan ez da go partidurik

Bestalde, Hernaniko Pala Txapelketaren barruan joan den asteburuan bost partidu jokatu ziren, eta honako hauek dira emaitzak: Ekaitz-Ruizek 30/ Estefano-Ezeizak 27; Aitzol-Urkok 30/ Imaz-Gonzalezek 21; Arluiziaga-Estebanek 30/Oiartzabal-Gilek 19; eta Lujanbio-Ortegak 30 Zabala-Auzmendik 21. Datorren astean ez da partidurik izango, eta 26an bi partidu jokatuko dira: Olazabal-Olaran/Imaz-Gonzalez eta Imaz-Gaizka/Estebe-Ezeiza. □

EA-EAJ: "Udal gestioa zuritu nahiean dabil Batasuna"

■ Koaliziaoren ustez, "Kultura eta euskerako arloetan egin dena salbatuta, asko da Hernanin orain 4 urte baino okerrago dagoena".

EA-EAJ koalizioak Udal Gobernuaren gestioa kritikatu du eta zenbait kezka ere planteatu ditu, Kronikara bidalitako prentsa komunitatuan. Oposizioko Talde nagusiaren iritziz, Hernanin gauza asko orain lau urte baino okerrago dago, kulturan eta euskeran egin dena kenduta, eta uste du Sozialista Abertzaleak Udal gestioa "zuritu nahiean" dabilela.

EA-EAJren hitzetan, "Herriaren partehartzeak behera egin du, Ongintza saila dese-gitea erabaki dute, udal babe-sa behar duten zaharrei kalitate gutxiagoko atentzia ematen zaie, udal soldatetan inoiz baino gehiago gastatzen dute, oinezkoen ibilbide urbanoak kendu egin nahi dituzte, etxebizitzak gero eta garestiago jarri dira eta hirigintza herriaren bizkarrean egiten ari dira".

"**Ez dute parke berririk ireki**" EA-EAJ koalizioaren kritika parkeen gestiora ere iritsi da eta koalizioak dio azken lau urteetan Udal Gobernuak ez duela parke berri bat ireki. "Parkeak egin dituztela badiote ere, herritar xumeenak badiak parke berririk ez dutela iriki azken lau urte hauetan, egun bakar batez ez bada 'jornada de puertas abiertas' delako aitzakiarekin" dio EA-EAJk. Bere iritziz "Politena edo Mendiaren izeneko parkea, Ave Maria parkea bezalatsu, ez dira datorren denbora luzean herriarenak izango, bateren batek erremedioa jartzen ez badio behintzat. Hernaniko hirigintza zenbait promotor eta udal aholkulari batzuen eskutan jarri delako, herriari aukera guztiak ukatuz hain zuen ere".

Kezka Txantxilla eta Paradore inguruko proiektuetaz

EA-EAJ kezkatuta dago Txantxillan eta Paradore inguruaren dijoazen proiektu urbanistiko gainean. Koalizioak dio lur horiek rekalifikatzeko Udal Gobernuak promotoreen iritzia hartu duela kontuan, "legeak aurreikusten duen herritarren partehartzeari garrantzirik eman gabe. Azkar, lehenbailehen, presaka eta korrika egin nahi diren operazio urbanistiko erraldoi horiek gaude gu arduraturik. Operazio horien inguruko isiltasunarekin ere harriturik. Zernolako interesak bultzaturik egin nahi diren rekalifikazio horiek jakin nahi-kogen guk, horregatik. EA-EAJk galdeku du "Batasunak zer gorde nahi duen parkeak egun bakar batean irekitzearen karameluarekin". □



Iñigo Elkoro TATEko web orri berria aurkezten.

'www.stoptortura.com'

■ Torturaren Aurkako Taldeak torturari buruzko informazioa interneten jarri du.

TORTURAREN Aurkako Taldeak bere lana zabaltzeko web orria jarri du eta atzo egin zuen aurkezpena, TATEk Hernanin duen lokalean.

TATen torturari buruzko web orria www.stoptortura.com helbidean dago, eta Iñigo Elkorok adierazi duenez helburua da torturari buruzko informazio guztia bildu eta zabaltzea. Web orri horretan, zatirik haundieta torturari buruz sortzen diren notiziek beteko dute eta albisteak sortu ahala berrituko da.

Horretaz gain, beste informazio asko ere jasoko du interneteko orriak: tortura testimonia, salaketak, tortura metodoak, argazkiak, tortura desagertzeko proposamena TATen urteroko txostenak, loturak torturaren aurkako nazioarteko erakundeekin, liburutegi digitala eta abar.

Torturaren Aurkako Taldeak adierazi duenez, herritarrek internet bidez aukera izango dute torturaren kontrako atxikimendua emateko. □

MUSIKA KONTZERTUA HERNANIN



Hernanik Musika Banda Biterin emandako kontzertuan, Zipri Otxotorenaren gidaritzapean.

Hernaniko Bandak eta Berako Eskolako ikasleek bete egin zituzten Biterin eta Sandiusterrin

BITERI eta Sandiusterri bete egin ziren Hernaniko Musika Bandaren eta Berako ikasleen kontzertuak entzuteko. Bandak azken 50 urteotan klasiko bihurtu diren talde eta konpositoreen kantu ezagunak jo zituen, Zipri Otxotorenak zuzenduta: *The Beatles Gold*,

You can leave your hat on, The Cream of Clapton, ABBA forever, Sounds of Simon & Garfunkel eta We are the Champion. Zenbait kantuetan, Kantuz abesbatzaren ahotsek lagundu zuten kontzertua.

Biterin ez ezik, Sandiusterri ere jende asko bildu zen,

Musika Eskolak antolatutako kontzertuan. Oraingo txandan, Berako Musika Eskolako ikasleak izan ziren Hernanin eta instrumendu ezberdinak taldeak aritu ziren jotzen. Berako Eskolako musikari gazteak ez ezik, kantu batzuetan herniarrek ere jo zuten. □



Berako ikasleen kontzertua Sandiusterrin, Musika Eskolan antolatutako ekitaldian.

IGERIKETA - UDABERRIKO JARDUNALDIAK

Hernaniarrak bikain Ordizian

HERNANIKO igerilariek Ordizian izan berriak dira Uda-berriko Jardunaldien barruan, eta emaitza bikainak lortu dituzte. Denbora aipagarrienak honako hauek dira: 200 metro libreetan, Anne Altunak 2' 36", Nadia Diezek 2' 47", Andrea Uzkudunek 2' 50", Miren Altunak 2' 54", Eunate Belegainek 2' 57", Amaia Valerok 3' 07" eta Mañel Aizpuruak 2' 10".

100 metro libreetan: Mañel Aizpuruak 59" 22, Itziar

Gonzalezek 1' 15" eta Leire Garcia 1' 15" baita ere. 100 metro tximeletan: Eider Estibarizek 1' 19" ko denbora egin zuen. 50 metro bular erara: Ion Casasek 34" 70, Artur Casasek 34" 84, Jon Ander Izuzkizak 35" 90 eta Iara Jimenezek 37" 25 eko denborak egin zituzten.

Hernaniko igerilariek Aste Santuan ere entrenatzen ja-rraituko dute. Egun hauetan herrian bertan eta 21etik 27ra Cambrillsera joango dira. □



LEHENENGO URTEURRENA

Josepi Aldasoro Aizpeurrutia

2002ko apirilaren 16an hil zen, 79 urte zituela

Nahiz eta gure mina ez denborak senda Zuk erein zenuena hemen gelditzen da

Urteurrenako meza, apirilaren 27an da, igandean, Juan Bataiatzailea parrokian, goizeko 11:00etan

Zure familiak, 2003ko apirilaren 16an

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalarri anonomoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
- Gauzez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774

IRAGARKI MERKEAK

Extebizitza eta lokaletarako mota guztietako instalazio elektrikoak egiten dira (segurasun, energi aurreztea, erosotasuna,...). Deitu: 627 51 97 76

Pertsona bat behar dut etxeeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 08:00-12:00etara eta 16:00-20:00etara. 609 76 10 85 (20:00etik aurrera deitu).